GAZTEDI UDALEKUEN COVID PROTOKOLOA
PROTOCOLO COVID COLONIAS GAZTEDI

**COVID-19tik eratorritako segurtasun-neurriak**

Unean uneko inguruabarren eta osasun-agintarien aginduen arabera, neurriak zorroztu edo malgutu egin ahal izango dira.

- Familiek KUTXA KULTUR-era, Tabakalerako 4. solairura, lagunduko diete 3 eta 4 urte arteko haurrei, bai ekartzerakoan bai etxera bueltatzerakoan. Ekartzeko eta jasotzeko gunea behar bezala seinaleztaturik egongo da, eta pixkanaka egingo dira bata eta bestea. Familiek eta haurrek maskara erabili beharko dute, eta jarduera-koordinatzailearen eta begiraleen jarraibideak bete beharko dituzte uneoro.
- Familiek NESTOR BASTERRETXEA PLAZARA lagunduko diete 5 eta 12 urte arteko haurrei, bai ekartzerakoan bai etxera bueltatzerakoan. Ekartzeko eta jasotzeko gunea behar bezala seinaleztaturik egongo da, eta pixkanaka edo mailaka egingo dira bata eta bestea. Familiek eta haurrek maskara erabili beharko dute, eta jarduera-koordinatzailearen eta begiraleen jarraibideak bete beharko dituzte uneoro.
- Etorri ondoren, haurrek eskuak garbituko dituzte gel hidroalkoholikoz, eta taldeka joango dira geletara.
- Igogailuak bertan adierazten den moduan erabiliko dira.
- Izena eman ondoren, familiek eurek adierazitako helbide elektronikoan jasoko dituzte berariazko xehetasunak segurtasun- eta higiene-neurriak bermatzeko, haurrak ekarri eta eramatea ondo antolatuta eginez.

**Nola jokatuko dugu taldean?**

- Taldeetan 9 parte-hartzaile izango dira gehienez, eta adinaren arabera osatuko dira taldeak: 3-4 urtekoak txikien taldean, 5-8 artekoak erdiko taldean, eta 9-12 artekoak nagusien taldean.
- Talde bakoitzak begirale bat izango du esleituta, eta begirale laguntzaileak ere izango dira, COVID-19ak eragindako segurtasun-, higiene- eta osasun-neurriak betetzen laguntzeko.
- Halaber, koordinatzaile bat izango da, begiraleen lan eta jarduera guztiak koordinatzeko.
- Egungo zirkunstantziak direla eta, ahal den neurrian, segurtasun-distantziak errespetatuko dira, eta ez da ukipen-jarduera eta ariketarik egingo.
- Neska-mutikoek etxetik ekarri beharko dute motxila.
- Haur guztiek etxetik ekarriko dituzten maskarak erabili behar dituzte, eta motxilan gel hidroalkoholikoa eta paperezko zapiak izan beharko dituzte.
- Neska-mutiko bakoitzak bere ura eta hamaiketakoa ekarri behar ditu eta inola ere ez ditu partekatuko besteekin.

- Begiraleek COVID-19 prebentzio-prestakuntza espezifikoa jasoko dute, eta uneoro azalduko diote taldeari gune itxietan nahiz aire zabalean jarraitu beharreko arreta-neurriak.
- Lan-material bereizia erabiliko da, ez dituzte partekatuko pinturak, arkatzak eta gainerako elementuak, edo, partekatu behar badituzte, erabilera bakoitzaren aurretik erabili eta botatzeko materialez garbiketa eta desinfekzio sakona egin beharko da.
- Gela bakoitzak gel hidroalkoholikoa izango du eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko, baita ontzi edo paperontzi espezifiko bat ere erabili eta botatzeko materialarentzat (paperezko zapiak, etab.).
- Gela bakoitzak gune berezi bat izango du motxilak modu ordenatuan (pilatu gabe) eta erraz identifikatuta gordetzeko.
- Aipatu dugun motxila izan ezik, ezingo da inoiz etxetik beste materialik ekarri. Zira, jertsea, … ekarriz gero, horiek motxilaren barruan gordeko dira.

**Negulekuetan parte hartu aurretik etxean prestatzeko gomendioak**

- Jarduerara joan aurretik, etxean tenperatura neurtuko da. Sukarrik ez badu, negulekura joango da.
- 37 gradu edo gehiago baditu, 10 minutu itxaron eta tenperatura-neurketa egingo du berriro, eta ondoren beste neurketa bat, 5 minutu geroago. Behin eta berriz 37 gradu gainditzen baditu, ez da negulekura joango, eta dagokion osasun-zentrora deituko du zer egin behar duen esan diezaioten.
- Etxetik irten aurretik, eskuak garbitu behar dituzte, protokoloaren arabera, hau da, ura eta xaboia erabilita, modu arduratsu eta luzean.
- Gogorarazi behar zaie segurtasun-distantzia (1 eta 2 metro artekoa) mantentzen jarraitu behar dutela. Urruntze horren premia barneratzen laguntzeko, zergatik ez entseatu etxean? Kontuan izan behar da haur baten garunak lasai egoteko eta seguru sentitzeko errutina eta gauzei aurrea hartzea eskatzen dituela. Adibidez, korridorean edo etxeko egongelan marka bat jar genezake lurrean zinta itsasgarriz (edo hiru lokarri lotu, behar dugun neurria eman arte), haurrak ikus dezan zer den metro eta erdi edo bi metroko tartea.
- Azpimarratu behar zaie edozer gauzatarako eta, bereziki, gaizki sentitzen direnean, begiralearen laguntza eta babesa izango dituztela. Kasu horretan, begiralearengana joan eta gertatzen zaienaren berri eman beharko diote.

**Zer egin gaixotasun-kasuan?**

- Etxean norbait COVID-19arekin diagnostikatu badute, gurasoek edo tutoreek negulekuen antolatzaileei eta osasun-erakundeei ohartarazi behar diete, eta semea edo alaba etxean eduki behar dute.
- Gaixotasunaren sintomak (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, ondoez orokorra, …) dituela susmatzen bada negulekuan, familiari jakinarazi behar zaio semea edo alaba jaso dezan. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, eta bertan egoera baloratuko da. Balorazioa egin arte, pertsona isolatu edo bakartuta mantenduko da, kasu baieztatu baten aurrean behar diren kontrol-neurriei jarraituz.
- Negulekuko langileen edo haurren artean COVID-19 kasu bat baieztatzen bada, Zaintza Epidemiologikoko Unitatea zentroko zuzendaritzarekin harremanetan jarriko da arriskuaren ebaluazioa egiteko, kasuarekin harremana izan duten pertsonak identifikatzeko eta hartu beharreko neurriei buruz aholkuak emateko.

**Zer gertatzen da kutsaturik nagoelako ezin banaiz jarduerara joan?**

- Covid-19agatik haur, begirale edo koordinatzaileren bat gaixo badago edo horren susmoa badago, Osakidetzako protokoloei jarraituko zaie, eta, egoeraren arabera, talderen batean edo gehiagotan negulekua eten ahal izango da. Kasu horretan, kuotaren zati proportzionala itzuliko da.
- Kutxa Fundazioak eskura dituen protokoloak eta neurriak oso zorrotz eta zehatz bete arren, Covid-19 kasuren bat gertatu eta seme-alabentzako negulekua bertan behera geratzen bada, familiek ezingo diote inolako kalte-ordainik eskatu Kutxa Fundazioari, kuotaren zati proportzionala itzultzea izan ezik.

**Programa:**

- Gerta liteke Kutxa Kultur-eko GAZTEDI programak aldatu behar izatea pandemiaren egoeragatik eta ezartzen diren murrizketa-neurriengatik.
- Programa webgunean (www.kutxakultur.eus/gaztedi) eta formatu generikoan emango da, unean uneko egoerara egokitzen joan beharko da eta.

GAZTEDI UDALEKUEN COVID PROTOKOLOA
PROTOCOLO COVID COLONIAS GAZTEDI

## Medidas de seguridad derivadas del COVID-19

En función de las circunstancias de cada momento y de acuerdo con las prescripciones de las autoridades sanitarias, se podrán extremar o flexibilizar las medidas.

- Las familias acompañarán a los niños y niñas de edades comprendidas entre 3 y 4 años a KUTXA KULTUR, 4ª planta de Tabakalera tanto en la entrega como en la recogida. La zona de entrega y recogida estarán debidamente señalizadas y se realizarán de forma escalonada. Tanto las familias como los niños y niñas deberán llevar mascarilla y en todo momento seguirán las indicaciones del coordinador/a de la actividad y de los y las monitores/as.
- Las familias acompañarán a los niños y niñas de edades comprendidas entre 5-12 años de edad a la PLAZA NESTOR BASTERRETXEA tanto en la entrega como en la recogida. La zona de entrega y recogida estarán debidamente señalizadas y se realizarán de forma escalonada. Tanto las familias como los niños y niñas deberán llevar mascarilla y en todo momento seguirán las indicaciones del coordinador/a de la actividad y de los y las monitores/as.
- A continuación, los niños y niñas se lavarán las manos con gel hidroalcohólico y se dirigirán en grupo a las aulas.
- Los ascensores serán utilizados de la forma que se indique en el mismo.
- Una vez realizada la inscripción, las familias recibirán en el correo electrónico facilitado, los detalles específicos para garantizar las medidas de seguridad e higiene mediante una entrega y recogida organizada.

### ¿Cómo actuaremos en grupo?

- Los grupos contarán con un máximo de 9 participantes y se formarán teniendo en cuenta la edad: 3-4 años será el grupo de los txikis, 5-8 años medianos y 9-12 mayores.
- Cada grupo tendrá asignado un/a monitor/a y habrá monitorado de apoyo como refuerzo para ayudar a cumplir las medidas de seguridad, higiene y salud derivadas del COVID-19.
- Asimismo, se contará con una persona coordinadora para coordinar todo el trabajo y las actividades del monitorado.
- Debido a las circunstancias actuales y en la medida que sea posible, se respetarán las distancias de seguridad y se evitarán las actividades y ejercicios de contacto.
- Los y las niñas deberán traer de casa su mochila.
- Todos/as los niños y niñas deberán utilizar mascarillas que traerán de casa y llevarán en la mochila un gel hidroalcohólico y pañuelos de papel.

- Cada niño o niña traerá su agua y hamaiketako y en ningún caso se podrá compartir.
- El monitorado recibirá una formación específica de prevención COVID-19 y en todo momento explicarán al grupo las medidas de precaución que deberán seguir bien en los espacios cerrados como al aire libre.
- Se utilizará material de trabajo diferenciado, evitando compartir pinturas, lápices y demás elementos, o bien asegurando, en caso de que tengan que compartirse, una limpieza y desinfección exhaustiva con material desechable previa a cada uso.
- Cada aula estará dotada de gel hidroalcohólico para la limpieza y desinfección de las manos, y de un recipiente o papelera, específico para la eliminación del material desechable utilizado (pañuelos de papel…).
- Cada aula estará dotada con una zona específica para guardar las mochilas de una forma ordenada (sin apilar) y fácilmente identificada.
- En ningún momento se podrán traer materiales de casa, salvo la mochila que hemos mencionado. En caso de traer chubasquero, jerséis…estos se guardarán dentro de la mochila.

**Recomendaciones para una preparación previa en casa antes de participar en los negulekuak**

- Antes de acudir a la actividad se medirá en casa la temperatura. Si no tiene fiebre, acudirá al negulekua.
- Si tiene 37 grados o más, esperará 10 minutos y volverá a realizar una medición de temperatura, seguida de otra medición posterior pasados otros 5 min. Si de manera repetida supera los 37 grados no irá al negulekua y llamará a su centro de salud correspondiente para que le indiquen las actuaciones correspondientes.
- Antes de salir de casa, tienen que lavarse las manos, según el protocolo, es decir con agua y jabón y de manera concienzuda y prolongada.
- Hay que recordarles que deben de seguir manteniendo la distancia de seguridad (entre 1 y 2 metros). Para ayudarles a gestionar el distanciamiento ¿por qué no ensayarlo en casa? Hay que tener en cuenta que para que un cerebro de un niño o una niña esté tranquilo y se sienta seguro necesita rutina y anticipación. Por ejemplo, podremos poner en el pasillo o en el salón de la casa una marca con una cinta adhesiva en el suelo (o atar tres cordones hasta que dé la medida que necesitamos) para que el niño/a tome conciencia de qué es un metro y medio o dos metros.

- Insistirles en que podrán contar con la ayuda y apoyo de su monitor o monitora para cualquier cosa y especialmente, cuando se sientan mal. En este caso deberán acudir e informa a su monitor/a.

**¿Qué hacer en caso de enfermedad**?

- Los padres/madres o tutores deben alertar a la organización del neguleku y a las entidades sanitarias si alguien en su hogar ha sido diagnosticado con COVID-19 y mantener a su hijo/a en casa.
- Ante la sospecha de síntomas de la enfermedad (fiebre, tos, dificultad respiratoria, malestar general…), se debe avisar a la familia para que recojan al hijo/a. La familia contactará con su centro de salud, donde se valorará la situación. Hasta su valoración, se mantendrá a la persona aislada siguiendo las medidas de control ante un caso confirmado.
- Si se confirma un caso de COVID-19 entre el personal o entre los niños/as del neguleku, la Unidad de Vigilancia Epidemiológica, se pondrá en contacto con la dirección del centro para realizar una evaluación del riesgo, identificar a las personas que han tenido contacto con el caso y aconsejar sobre las medidas que deben de tomarse.

**¿Qué ocurre si no puedo acudir a la actividad por contagio?**

- En caso de enfermedad o sospecha de algún niño o niña o monitor/a o coordinador/a con Covid-19, se seguirán los protocolos de Osakidetza, pudiendo suspenderse la colonia en algún grupo o grupos, dependiendo de la situación. En ese caso, se devolvería la parte proporcional de la cuota.
- Por muy escrupulosamente que se respeten los protocolos y medidas disponibles por parte de KUTXA FUNDAZIOA, si se diera algún caso de Covid-19, las familias no podrán reclamar ninguna indemnización a KUTXA FUNDAZIOA, salvo la devolución de la parte proporcional de la cuota, si se ha suspendido la colonia para sus hijos o hijas.

**Programa:**

- Los programas GAZTEDI de KUTXA KULTUR pueden variar debido a la situación de la pandemia y de las medidas de restricción que se impongan.
- Se facilitará el programa en la Web (www.kutxakultur.eus/gaztedi) y en un formato genérico ya que se tendrá que ir adaptando a la situación en que nos encontremos.